

HITZAURREA

EGAN aldizkari literarioa Euskalerriko Adiskideen Elkarteak gaztelaniaz argitaratzen duen *BOLETIN*-aren euskal gehigarria izan da haseratik. *EGAN*-ek, ia, mende erdia bete du, lehen aldiz 1948 urtean argitaratu baitzen. Aurkibide nagusi honetan 1948 urtetik 1992 arte aldizkarian azalduko artikulua, artikuluska, albiste, adabaki eta bestetariko lanen zerrenda sistematikoa eskaintzen dugu.

Pozgarria da, benetan, aldizkari literario bat berrogeitabost urtetan, ia etenik gabe, kalera irtetzea. Denok dakigu aldizkari literario gehien bizia aski labur, eten eta urria izan ohi dela. *EGAN*-ek arioski gainditu du erronka hori.

EGAN aldizkaria, bestalde, gerra ostean, eta ondorengo frankismoaren herstura politikoan, *EUZKO GOGOIA*-rekin batean, euskararen alor literarioa zintzoen zaindu zuena izan da. Bere orrietan, azterketa literarioez gain, erruz sorkuntzazko lanak, poesiak, ahozko literatura, antzerkiak, albisteak, eta liburugintzaren inguruan sorturiko kritikak eta erreseinak. *EGAN*-ek, gainera, lehen urtetan atea irekita eduki zizkion albokide dugun gaztelaniari, bertan Gabriel Celaya eta Cuadra de Salcedo gisako autoreek parte hartu zutelarik. Gerora euskarari, soilik, irekia mentendu da, beste kulturak *BOLETIN*-ean bazituelako azalpide hedatuagoak. *EGAN*en lehen zuzendaritzan berme handizko hiru gizon ikusten ditugu, hots, A. Arrue, Aingeru Irigarai eta K. Mitxelena. Mitxelenaren partaidetza, mintzoari dagokionez, oso hedatua da. Aipaturiko gizonen itzalak eta sostenguak posible egin zuen aldizkariaren lehen aro nagusia.

EGAN, gainera, literaturaren arlotik kanpo euskara beraren lagun-garri izan da, naiz euskara batuaren hurratsak, adibidez, bere orrietan goiz ikus daitezkeelako. Gerora, Juan San Martin idazlearen ardura jasozuenetik, *EGAN*-ek ibilbide berriak egin zituen, narratibaren arloan, batez ere, euskal idazle berrien joerei leiho egokia eskainiz.

Esan dezakegu gerraosteko belaunaldi berrien lehia, asmo eta zituak, eta, bereziki, hain garrantzitsua izan zen 1960-1968-ko belaunaldiaren azalpen literarioak, eta ondorengo 1970 eta 1980-eko en hurratsak bertan erraz atzematen direla.

EGAN-en zuzendaritza berriari, 1992 ezkeroztik aldizkariari mamiz eta azalez emaniko aldaketaren ondorioz, egokia iruditu zaio INDEX nagusi baten bitartez irakurleari *EGAN*-en argitaratutako lan guztien azalpen eroso eta sistematikoa eskaintzea. Irakurleak eskutan duen aurkibideak bi zati nagusi ditu. Lehenengoan *EGAN*-en, ia berrogaitabost urtetan, idatzi duten autore guztien zerrenda alfabetikoa ematen da. Autore horietan nabarmen K. Mitxelena, bereziki, liburuen kritika eta erreseina eta filme-komentariotan, A. Irigarai, N. Altzola-Gerediaga eta Juan San Martin gisako idazleak. Ze luma oparoa eurena! Bigarren zatian alde tematikoa azaltzen da, atalik esanguratsuenak direlarik literatur azterketak (lirika zaharra, lirika modernoa, ahozko literatura), sorkuntza narratiboa eta poetikoa, itzulpenak (bereziki, gaztelania, frantsesa eta ingelesetik), antzerkiaren emaitzak, euskararen zenbait alderdi filologiko (toponimia, lexikoa, euskalkiak, hizkuntzaren soziologia), adabakiak (nekrologiak, gastronomia, artea) eta bibliografia (bai zerrenda huts gisa, eta bai kritika bezala).

Adierazpen guztiek argitarapen-urtea, eta aldizkariaren urte eta orriak seinalaturik dituzte. Gure ustetan AURKIBIDEa aski zehatza eta erabilerreza da. Alderdi tematikoan, bestalde, irizpide kronologikoa jarraitu dugu, eta ez idazleei alfabetikoki dagokiena.

INDEX nagusi hau burutzen lan eskerga egin dute Maite Mujikak, Magisteritzan diplomatuak, Gillermo Etxeberiak, egungo aldizkariaren idazkariak, eta Luis Maria Mujikak, aldizkariaren zuzendariak.

Gure asmoa eginkizun honetan, lehenik, *EGAN*-en irakurleak orientatzea izan da, eta, gerora, beste edozein irakurle, idazle, irakasle eta literatur aztertzaileari tresna eroso eskaintzea.

Lana denen onuragarri gerta dadila espero dugu.

Luis Maria Mujika

EGAN-en zuzendaria